

# HARRERA-PASAPORTEA

## HELBURUAK

- Pasaporte eta beste nortasun agiri batzuk ezagutu nortasun eta hiritartasunerako gure eskubidearen isla modura.
- Beste haur batzuen egoerarekin enpatia izan eta eurekin kidetasuna izan dezaketen gauzak imajinatu.
- Mundu guztiko haurren eskubideekiko konpromisoa hartu eta eskakizun baten bitartez hiritar moduan parte hartu.

## BEHARREZKO MATERIALAK

- Pasaporte orri bat pertsona bakoitzeko. Pasaporte pertsonalizatu eta deskargatu daiteke esteka honetan: [unicef.es/educa](http://unicef.es/educa)
- Idazteko eta margotzeko materiala.
- Partaide bakoitzaren NAN neurriko argazkia (aukerakoa, autorretratu bat erabili daiteke).
- Argazkiak: bidaietako argazkiak, argazki pertsonalak, aldizkarietatik moztutako argazkiak, bidaia-txarteleko argazkiak, museo-sarrerak, tiketak eta abar.
- Barra-lekeda, grapagailua eta pasaporte koadernatzeko koloretako papera edo washi tape.

## LAGUNTZA-MATERIALA

- Jarduera eta baliabideen gida: neska-mutil migratzaile edota errefuxiatuen eskubideetan eta herritartasun globalean oinarritutako hezkuntzari buruzkoa. Gida eskuragai dago esteka honetan: [unicef.es/educa](http://unicef.es/educa)

Pasaporte herrialdeen mugarrietatik harago bidaiatzeko aukera ematen digun nortasun dokumentu bat da. Herrialde bateko edo beste bateko pasaporte izateak munduan zehar mugitzeko ditugun aukera errealak baldintzatzen ditu. Pasaporte edo bisa galtzeak, ukatzeak edo kentzeak arazo ugari ekar ditzake bidaiatzen ari garenean. Pasaporteak islatzen du nortasunerako, naziotasun bat edukitzeko eta herritartasunerako dugun eskubidea; baita pertsona orok bidaiatzeko, garatzeko eta aukera berriak bilatzeko duen aukera librea.



**Pasaportea sortuko dugu.** Denon artean sortuko dugu pasaporte berezi bat, non herrialdeak ez diren garrantzitsuena, harrera ematen diegun pertsonak baizik.

**1** PDFa pasaportearen orriekin deskargatu, [unicef.es/educa](http://unicef.es/educa) web orrialdean, eta bi aldetatik inprimatu daiteke A3 edo A4 formatuan; A4 neurriko pasaporte bat edo orri laurdeneko tamaina duen pasaportea lortzeko (orriak tolestuta joango dira)



**2** Bi aldetatik inprimatu ditugun lehenengo bi orriak gordeko ditugu. Orri horiek denon artean egingo ditugun orrialdeak koadernatzeko erabiliko ditugu. Azalari dagokion orria inprimatzeko, kartoi mehea erabili dezakegu pasaporte sendoago bat nahi badugu.



**3** PDFak orri solte bat dauka partaide bakoitzeko. Hau da, partaide bakoitzak orri bat jasoko du eta bertan bere burua aurkeztu, gustuak azaldu, bidaia-lehentasanak azaldu eta gizateriarako nahiak adieraziko ditu. Orrialdeak bete beharreko beste atal bat dauka, eta, hori betetzeko, simbolikoki harrera emango diogun haurren lekuan jarrita egingo dugu. Atzealdean marrazkiak egin daitezke; bidaien inguruko argazkiak, bidaia-txartelak eta tiketak itsatsi daitezke, eta ongietorriak eta bidaia-mezuak ere idatzi daitezke. Aurreko prozesua txikieneztat egokitu dezakegu, pasaportea betetzen lagunduz edo marrazkiak bakarrik eginez.



**4** Orriak tolestu egiten dira "Naiz" eta "Harrera emango dut" orriak, barrualdean aurrez aurre utzita. Orrialde guztiak ditugunean, bata bestearen gainean jarri eta aurretik gordetako orriekin estaliko ditugu, kanpoaldean azalari dagokion orrialdea utzita. Orrialde guztiak tolesturetatik gratatu. Grapatu ez ikusteko eta pasaportea apaintzeko koloretako paper-zerrendak edo washi tape zatiak erabili ditzakegu.



**5** Azalaren barrualdean gure sinadurak jarriko ditugu, eta atzeko azalean taldearen argazkia bat, marrazki bat edo gure borondate oneko mezuak idatziko ditugu.



Badaukagu gure harrera-pasaportea! Ikasgelan ageriko leku batean jarriko dugu, haurren eskubideak defendatzeko dugun konpromisoa ahaztu ez dezagun.



# HAURRAREN EGUNEKO OSPAKIZUNA



Haurren eguna dela eta, jendaurreko ekitaldi bat egin dezakegu ikastetxean edo udalaren laguntzarekin. Ekitaldi horretara ikastetxeko beste ikasgela batzuk, familia eta lagunak gonbidatu ditzakegu. Ospakizun horretan pasaportearen manifestua irakurriko dugu, eta mezuak gehituko dizkiogu, harrerari, mundu hobea lortzeko nahia eta konpromiso pertsonalari buruzkoak. Gure pasaportearen kopia bat eman diezaiekegu tokiko agintariei, gure harrerarako konpromisoa babestu dezaten. Zorionak haurren egunean!



Jardueraren argazkiak izanez gero, [www.unicef.es/educa](http://www.unicef.es/educa) web orrian argitaratu ditzakezue zuen esperientziak partekatzeko, UNICEFekin parte hartzen duten beste ikastetxeekin.



© UNICEF/UN05568/Georgiev



Argitalpena  
UNICEF Espainiako Batzordea  
[www.unicef.es/educa](http://www.unicef.es/educa)

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argtataruta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación  
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.